



## **OINARRI OROKORRAK, ZEINEN BIDEZ ARAUTZEN BAITA ARABA GARAPEN AGENTZIA SA SOZIETATEAREN ZERBITZURA BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARI LANPOSTUA BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA**

### **LEHEN OINARRIA.- ARAU OROKORRAK:**

- 1.1. Oinarri hauen xedea da bide, ubide eta portuetako ingeniari lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuaren arauak ezartzea.
- 1.2. Aplikagarria izango da deialdi honetan oro har xedatutakoa. Oinarri hauek arautuko dituzte hautaketa sistema eta puntuazioak.
- 1.3. Deialdiaren xede den lanpostuak urtean 62.155 € gordinoko ordainsaria du.
- 1.4. Lanpostuaren zereginak sozietatearen bulegoetan beteko dira: Joaquin Jose de Landazuri kalea 13-15, behea, 01008 Gasteiz (Araba).
- 1.5. Plaza betetzeko araudi espezifikoa haren oinarri espezifikoetan jasoko da.
- 1.6. Kontratazioa kontratu mugagabearen bidez egingo da, Langileen Estatutuan xedatutakoaren arabera eta horri dagokion probaldia ezarrita.
- 1.7. Deialdi hau enplegu webguneetan argitaratuko da, eta oinarriak (orokorrak eta espezifikoak) eskuragarri daude AGAren webgunean ([www.aad.eus](http://www.aad.eus)) eta QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL enpresa laguntzailearen webgunean ([www.qualisconsultores.es](http://www.qualisconsultores.es))

### **BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (baldintzak baztertzailak dira betiere):

- A) Eskaera: Eskaera, I. **eranskina** eta II. **eranskina** betetzea (eremu guztiak).
- B) Titulazioa: Oinarri espezifikoetan eskatutako titulazioak izatea.

### **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

3.1. Izangaiek honako agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdi bakoitzean zehazten den helbidera:

- I. **eranskina**.
- II. **eranskina**.

- **NANaren** edo balio bereko nortasun agiri baten **irudi eskaneatua**.
- **Curriculum vitae**
- Gizarte Segurantzak emandako **lan bizitza eguneratua**.
- Oinarri espezifikoetan **eskatutako titulazioaren kopia**.
- Eskatutako ezagutzak edo baloratzekoak direnak egiaztatzeko **ziurtagirien edo diplomen kopiak**.
- Hizkuntza **titulazioen kopiak**.
- **Alegatutako merezimenduak eta merezimenduak justifikatzen dituzten agiri guztiak**.
- **Curriculum memoria**, idatzizko dokumentu gisa ulertuta, non zehatz-mehatz azalduko baitira hautagaien lanbide esperientziari eta oinarri espezifikoetan aurreikusitako irizpideei dagokionez balioetsi nahi diren elementu guztiak. Gehienez ere 30 orri, eta orri bakoitzak 6.000 karaktere izango ditu, hutsuneak barne.

**Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 22ra arte** izango da, **egun hori barne**.

Mezu elektronikoa bat bidaliko da, informazio gisa, izangaiek emandako helbide elektronikora, jakinarazteko prozesuan onartu egin dituztela edo, hala badagokio, zergatik baztertu dituzten.

#### **LAUGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA**

**4.1** Oro har, bitarteko hauen bidez jakinaraziko dira deialdiaren eta hautaketa prozesuen inguruko iragarkiak, probetarako deialdiak, emaitzen argitalpenak eta abar:

- [www.ccasa.eus](http://www.ccasa.eus) webgunean.
- [www.qualisconsultores.es](http://www.qualisconsultores.es) webgunean.

Lehenengo argitalpena baino lehenago, interesdun bakoitzari haren eskaerari eman zaion kodea jakinaraziko zaio. Kode horrek identifikatuko du izangaia hautaketa prozesuan zehar egin beharreko argitalpenetan.

**4.2.** Araba Garapen Agentzia SAK lan poltsa bat sortuko du hautaketa prozesua gainditu duten pertsona guztiekin, puntuazioaren hurrenkeran.

#### **BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN HAUTAKETA:**

Hautaketa probak amaitutakoan, hautaketa organoak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde.

Hautagaien artean berdinketa badago, 1. fasean puntuaziorik handiena lortu duen pertsona hautatuko da berdinketa hausteko. Berdinketak jarraitzen badu, 4. fasean puntuaziorik handiena lortu duen pertsona hautatuko da hautagai gisa. Berdinketak bere horretan badirau, zozketa egingo da puntuazioan berdinduta dauden hautagaien artean.

Azken erabakia interesdunari helaraziko zaio.

**SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA ORGANOA:**

**6.1** Hautaketa organo bat eratuko da, eta hartako kideak izendatzerakoan inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideei jarraituko zaie. Organo hori honako kide hauek osatuko dute:

- Organoburua: Araba Garapen Agentzia SAko zuzendari kudeatzailea
- Kidea: Araba Garapen Agentzia SAko teknikari arduraduna
- Kidea: Araba Garapen Agentzia SAko teknikaria
- Kidea eta idazkaria: Araba Garapen Agentzia SAko ekonomia eta finantza arduraduna

**6.2.** Ordenamendu juridikoaren arabera, hautaketa organoak ebatziko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Horrez gain, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

Aipatutako organoko kideren batek ezin badu azaldu, sozietatearen zuzendaritzak (hala badagokio) izendatuko du haren ordezkoa. Hautaketa organoa gutxienez hiru kidek osatuko dute betiere.

**6.3.**Hautaketa organoak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuek parte hartzea, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

**6.4.** Hautaketa organoko kide guztiek izango dute ahotsa eta botoa. Hautaketa organoaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

**6.6.** Hautaketa organoko kideen izen zerrenda behin betiko onartu eta baztertu diren izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da.

**ZAZPIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:**

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legea) xedatutakoa betetzeko, jakinarazten diegu langileen hautaketa prozesu honetan parte hartzen dutenei ezen edozein arrazoiengatik ere beren parte hartzearen ondorioz ematen dituzten datu pertsonalak sartuko direla Araba Garapen Agentzia Saren (AGA) eta QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SLren tratamenduetan.

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AGA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	ARABA GARAPEN AGENTZIA SA

Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AGAk: <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AGAren arteko lan harremana kudeatzeko.</li> <li>AGAk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.</li> </ul>
Legitimazioa	Izangaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean
Hartzaileak	Ez dira lagako
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko ere, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilera zehatza eta baliatu nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazioa aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean ( <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> )
<b>ONARRIZKO LEGE INFORMAZIOA QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL-REN DATU BABESARI BURUZ</b>	
Arduraduna	Qualis Consultores de Talento SL
Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu Qualis Consultores de Talento SLk: <ul style="list-style-type: none"> <li>Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun profilak eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzeko.</li> </ul>
Legitimazioa	Izangaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean.
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Gordetzea	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko ere, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilera zehatza eta baliatu nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazioa aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean ( <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> )



**OINARRI ESPEZIFIKOAK, ZEINEN BIDEZ ARAUTZEN BAITA ARABA GARAPEN AGENTZIA SA  
SOZIEATEAREN ZERBITZURA BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARI LANPOSTUA  
BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA**

(deialdiaren kodea: 202303aad)

**LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

Sozietatearen arduradun teknikoaren mende egongo da hierarkikoki, eta honako eginkizun hauetakoren bat bete ahal izango du:

- Industriaguneetako instalazioen eta sareen eta sozietateak bere kontura edo hirugarrenen bitartez egiten dituen obra guztien diseinuan parte hartzea eta lanak gainikustea.
- Hirigintzako agiriak idaztea, haien prestakuntza gainikustea eta izapideak egitea.
- Industriaguneak eta industria nabeak, araztegiak, ur sareak, instalazio eta sare elektrikoak, eta abar egiteko proiektuak prestatzen eta gauzatzen parte hartzea eta lanak gainikustea.
- Agintzen zaizkion aurreproiektuak, proiektuak, azterlanak, planak eta abarrak idaztea eta aztertzea.
- Segurtasun eta osasun planaren, kalitatea ziurtatzeko planaren, ingurumen planaren eta agintzen zaizkion beste plan batzuen zuzendaritza fakultatiboa, kontrola eta jarraipena.
- Sozietateak egiten dituen lizitazioen baldintza teknikoen agiriak prestatzea, aurkezten diren eskaintzak aztertzea eta baloratzea, eta lizitazioak adjudikatzeko txostenak egitea.
- Kontratuak prestatzeko, bideratzeko eta gauzatzeko agintzen zaizkion lan guztiak.
- Zerbitzu sareak planifikatu eta kontrolatzeko lanak egitea (batez ere, hornidura, saneamendua, argiak...).
- Sozietateak edo beste entitate elkartu batzuek edo antzekoek konpromiso hori duten zonetan mantentze lanak planifikatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko lanak egitea.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dizkieten gainerako egiteko guztiak, lanpostuari eta titulazioari lotuta gonez gero.

**BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

Izangaiek posta elektroniko bidez bidali beharko dituzte oinarri orokorretako 3.1) apartatuan eskatzen diren agiriak, honako helbide honetara: [202303aad@qualisconsultores.es](mailto:202303aad@qualisconsultores.es)

Eskaerak aurkezteko epea **2024ko urtarrilaren 22ra arte** izango da, egun hori **barne**.

**HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUA DISEINATZEA ETA PROBAK BALORATZEA:**

**1. FASEA: GAITASUN TEKNIKOAREN BETEKIZUNAK, ESPERIENTZIA. (gehienez, 100 puntu).**

**1.1-GAITASUN TEKNIKOAK**

**Betekizuna:** Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari titulua edo

Gradua Ingeniaritza Zibilean eta Masterra Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan.

**Puntuazioa:** nahitaezko betekizuna.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** kasuan kasuko titulua.

**Betekizuna:** B motako gidabaimena.

**Puntuazioa:** nahitaezko betekizuna.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** kasuan kasuko gidabaimena.

**Betekizuna:** Euskarako B1 maila.

**Puntuazioa:** nahitaezko betekizuna.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** titulua edo egiaztapen proba.

**Betekizuna:** Ingeleseko B2 maila.

**Puntuazioa:** nahitaezko betekizuna.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** titulua edo egiaztapen proba.

**1.2- ESPERIENTZIA:**

**Betekizuna:** 5 urtetik gorako esperientzia eskatutako titulazioari dagozkion lanetan (ez da kontuan hartuko irakaskuntzan, ikerketan eta antzekoetan izandako esperientzia).

**Puntuazioa:** nahitaezko betekizuna.

**Aurkeztu beharreko agiriak:** CV-a, eduki profesionalen zinpeko adierazpena eta lan bizitza eguneratua.

**1.3-ESPERIENTZIA ETA PRESTAKUNTZA LANPOSTUAREN LAN ESPEZIFIKOETAN (gehienez 100 puntu)**

**Betekizuna:** industria garapenetako proiektuak, zerbitzu sareak, lurrak mantendu eta mugitzea, lur berdinketak eta zoladurak kontrolatzeko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea.

**Puntuazioa:** 15 puntu.

**Betekizuna:** zerbitzu sareen, arazketa instalazioen eta urbanizazio obren mantentze lanen kontrol teknikoko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea.

**Puntuazioa:** 25 puntu.

**Betekizuna:** industria garapenen, zerbitzu sareen, lurren euste eta mugimendu lanen, lur berdinketen, zoladuren eta eraikuntzaren (bizitegi erabilera izan ezik) obra kontrol eginkizunekin lotutako lanpostuetan jardutea.

**Puntuazioa:** 30 puntu.

**Betekizuna:** uraren ziklo integraleko kontrol eginkizunekin lotutako lanpostuak betetzea.

**Puntuazioa:** 15 puntu.

**Betekizuna:** kutsatutako lurzoruen kudeaketan ezagutza eta esperientzia izatea.

**Puntuazioa:** 10 puntu.

**Betekizuna:** 30 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 60 ordu arte. 60 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 100 ordu arte. 100 orduko edo gehiagoko ikastaroak.

**Puntuazioa:** 5 puntu.

**1.3 apartatuko betekizun guztiak egiaztatzea:** curriculum-memoria xehatua, jarduera baloragarri bakoitzari eskainitako denbora aldien banakapen zehatzarekin (gehienez ere 30 orri eta 6.000 karaktere orri bakoitzeko, tarteak barne).

## **2. FASEA: HIZKUNTZEN BETEKIZUNA. (gehienez, 10 puntu).**

### **2.1. EUSKARA**

**Betekizun baloragarria:**C1/C2

**Puntuazioa:** 5 puntu

**Betekizun baloragarria:**B2

**Puntuazioa:** 2 puntu

### **2.1.- INGELESA**

**Betekizun baloragarria:**C2

**Puntuazioa:** 5 puntu

**Betekizun baloragarria:**C1

**Puntuazioa:** 2 puntu

**2. faseko betekizun guztiak egiaztatzea:** dagokion titulua aurkeztuta.

## **3. FASEA: LANPOSTURAKO EGOKITASUNARI BURUZKO PROBA**

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- 1. eta 2. faseetako zenbaketa orokorrean 5 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei egingo zaizkie probak, betiere gutxieneko puntuazioa 60 puntukoa bada.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.

- QUALIS CONSULTORES DE TALENTO, S.L. sozietateak txosten zehatza egingo du, 5 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei elkarrizketa egin ostean.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AGAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.

#### **4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (geh. 40 puntu)**

- **Nahitaezkoa.**
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 1. eta 2. faseetako emaitza orokorra kontuan hartuta puntuaziorik onena lortu duten 5 izangaietatik 3. fasean gaitzat jo direnei.
- Aipatutako elkarrizketa hautaketako epaimahaikideek egingo dute AGAren egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak eta zeharkakoak. Elkarrizketa bat baino gehiago egin ahal izango da, hautaketa organoak hala erabakitzen badu.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun eta ezagutza hauek baloratuko dira:
  - Antolatzeko gaitasuna
  - Talde lana
  - Ekimena
  - Komunikazio trebetasunak
  - Berrikuntzaren aurreko jarrera
  - Beste hizkuntza batzuk edo I. fasean ebaluatu gabeko ezagutzak
- Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:
  - Gaitasunik eza: puntu 1.
  - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 2 puntu
  - Gaitasuna garatzeko fasean: 3 puntu.
  - Gaitasun maila aurreratua: 4 puntu
  - Gaitasun maila bikaina: 5 puntu
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

#### **PUNTUAZIOEN LABURPENA, FASEKA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
100	10	E/A	40	150



## I. ERANSKINA - HAUTAPROBETARAKO ONARPEN ESKAERA

DEIALDIAREN KODEA	202303aad
LANPOSTUAREN IZENA	

### DATU PERTSONALAK

LEHEN ABIZENA	BIGARREN ABIZENA	IZENA
JAIOTEGUNA	JAIOTERRIA – PROBINTZIA/HERRIALDEA	NAZIONALITATEA
NAN EDO PASAPORTE ZK.	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

### AGIRI HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK

- II. eranskina
- NANaren edo haren dokumentu baliokidearen fotokopia.
- Curriculum vitae.
- Lan bizitzaren agiri eguneratua.
- Oinarrietan eskatzen d(ir)en titulu akademiko(ar)en fotokopia.
- Beste batzuk:

Behean sinatzen duenak **ESKATZEN DU** onartua izan dadila eskaera honetan aipatzen diren hautaprobak egiteko, eta **ADIERAZTEN DU** egiazkoak direla eskaera honetan jasotako datuak, betetzen dituela deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizun guztiak eta konpromisoa hartzen duela agiriaren bidez frogatzeko eskaera honetan jasotako datu guztiak, hala eskatzen zaionean.

Halaber, behean sinatzen duenak, hurrengo paragrafoko laukitxoak markatuz (ξ), adierazten du AADari y QUALIS CONSULTORES SLri baimena ematen diela bere datuak (eranskin honetakoak eta lanpostuaren deialdi honi buruzko beste eranskin batzuetakoak) tratatzeko, eranskin honetako hurrengo orrialdean adierazitakoaren arabera:

- Baimena ematen dut** AADk nire datuak trata ditzan.
- Baimena ematen dut** QUALIS CONSULTORES SLk nire datuak trata ditzan.
- Baimena ematen dut** QUALIS CONSULTORES SLk nire datuak trata ditzan, AADrenak ez diren beste hautaketa prozesu batzuetan.

.....(en)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n

**Sinatzailea:**

<b>OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKSA-REN DATU BABESARI BURUZ</b>	
Arduraduna	AADko Administrazio eta Giza Baliabide Saileko arduraduna
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AADk: <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AADaren arteko lan harremana kudeatzeko.</li> <li>AADk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.</li> </ul>
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazio aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean ( <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> ).

<b>OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA QUALIS CONSULTORES SL-REN DATU BABESARI BURUZ</b>	
Arduraduna	QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL, Gasteiz hiribidea 62, 1.a, 6. bulegoa, 01012 Gasteiz, <a href="mailto:qualis@qualisconsultores.es">qualis@qualisconsultores.es</a>
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SLk: <ul style="list-style-type: none"> <li>Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzeko</li> </ul>
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Kontserbazioa	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazio aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean ( <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> ).



## ESPERIENTZIA

Esperientzia mota	Hasiera data	Amaiera data	Enpresa	Lanpostua	Proiektuen deskribapena eta egindako funtzioak

.....(e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n

Sinatzailea:



**RELACIÓN DE ADMITIDOS/AS PROVISIONALES PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	ANEXO I	ANEXO II	DNI	CARNET CONDUCIR	CV	V. LAB	TITULACIÓN	IDIOMAS	MEM. CURRI.	ADMITIDOS/AS PROVISIONALES
1	DE7AKL	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	<input checked="" type="checkbox"/>	NO
2	X53LEU	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	<input checked="" type="checkbox"/>	✓	NO
3	4SPP1P	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
4	I7H1QX	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
5	7DY9YQ	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
6	28X2UC	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
7	2GCOUA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
8	FWEG8F	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
9	0VWM9M	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
10	2DXWFZ	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI

Se establece un periodo de subsanación de documentación desde la publicación del presente documento hasta las 23:59h. del martes 30 de enero de 2024. Dichas subsanaciones podrán dirigirse por escrito al correo electrónico [202303aad@qualisconsultores.es](mailto:202303aad@qualisconsultores.es).



**RELACIÓN DE ADMITIDOS/AS DEFINITIVOS/AS PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA  
SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	ANEXO I	ANEXO II	DNI	CARNET CONDUCIR	CV	V. LAB	TITULACIÓN	IDIOMAS	MEM. CURRI.	ADMITIDOS/AS DEFINITIVOS/AS
1	DE7AKL	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	<input checked="" type="checkbox"/>	NO
2	X53LEU	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	<input checked="" type="checkbox"/>	✓	NO
3	4SPP1P	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
4	I7H1QX	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
5	7DY9YQ	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
6	28X2UC	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
7	2GCOUA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
8	FWEG8F	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
9	0VWM9M	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI
10	2DXWFZ	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	SI

**RELACIÓN DEFINITIVA DE PUNTUACIONES FASES 1 Y 2 PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	PUNTUACIÓN FASE 1	PUNTUACIÓN FASE 2		PUNTUACIÓN TOTAL FASES 1 Y 2
			INGLÉS	EUSKERA	
1	4SPP1P	26	2	5	33
2	0VWM9M	27	0	5	32
3	28X2UC	20	2	2	24
4	2GC0UA	15	2	5	22
5	2DXWFZ	17	2	0	19
6	7DY9YQ	12	5	0	17
7	FWEG8F	5	2	5	12
8	I7H1QX	1	2	5	8

\*NOTA: Por decisión del Tribunal de Selección, no se tendrá en cuenta el umbral mínimo de 60 puntos definido en la página 3 de las bases específicas que regulan el proceso.

**RELACIÓN PROVISIONAL DE PUNTUACIONES FASES 1 Y 2 PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	PUNTUACIÓN FASE 1	PUNTUACIÓN FASE 2		PUNTUACIÓN TOTAL FASES 1 Y 2
			INGLÉS	EUSKERA	
1	4SPP1P	26	2	5	33
2	0VWM9M	27	0	5	32
3	28X2UC	20	2	2	24
4	2GC0UA	15	2	5	22
5	2DXWFZ	17	2	0	19
6	7DY9YQ	12	5	0	17
7	FWEG8F	5	2	5	12
8	I7H1QX	1	2	5	8

\*NOTA: Por decisión del Tribunal de Selección, no se tendrá en cuenta el umbral mínimo de 60 puntos definido en la página 3 de las bases específicas que regulan el proceso.

Se establece un periodo de consultas/alegaciones desde la publicación del presente documento hasta las 23:59h. del martes 27 de febrero de 2024. Dichas consultas/alegaciones podrán dirigirse por escrito al correo electrónico [202303aad@qualisconsultores.es](mailto:202303aad@qualisconsultores.es)





**RELACIÓN DE LA FASE 3 PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

CÓDIGO	PUNTUACIÓN FASE 1	PUNTUACIÓN FASE 2		PUNTUACIÓN TOTAL FASES 1 Y 2	FASE 3 (APTO/A – NO APTO/A)
		INGLÉS	EUSKERA		
1 4SPP1P	26	2	5	33	APTO/A
2 0VWM9M	27	0	5	32	APTO/A
3 28X2UC	20	2	2	24	APTO/A
4 2GC0UA	15	2	5	22	APTO/A
5 2DXWFZ	17	2	0	19	APTO/A



**PUNTUACIONES FASE 4 Y PUNTUACIÓN TOTAL PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	PUNTUACIÓN FASES 1 Y 2	FASE 3	PUNTUACIÓN FASE 4	PUNTUACIÓN TOTAL
1	0VWM9M	32	APTO/A	24	56
2	4SPP1P	33	APTO/A	18	51
3	28X2UC	24	APTO/A	25	49
4	2GC0UA	22	APTO/A	22	44
5	2DXWFZ	19	APTO/A	13	32

Se establece un periodo de consultas desde la publicación del presente documento hasta las 23:59h. del viernes 10 de mayo de 2024. Dichas consultas podrán dirigirse por escrito al correo electrónico [202303aad@qualisconsultores.es](mailto:202303aad@qualisconsultores.es)



**PUNTUACIONES FASE 4 Y PUNTUACIÓN TOTAL PARA PUESTO DE INGENIERO/A DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL, ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO S.A. (202303aad)**

	CÓDIGO	PUNTUACIÓN FASES 1 Y 2	FASE 3	PUNTUACIÓN FASE 4	PUNTUACIÓN TOTAL
1	0VWM9M	32	APTO/A	24	56
2	4SPP1P	33	APTO/A	18	51
3	28X2UC	24	APTO/A	25	49
4	2GC0UA	22	APTO/A	22	44
5	2DXWFZ	19	APTO/A	13	32